

# XEDAPEN OROKORRAK

## LEHENDAKARITZA

### 2524

*EBAZPENA, 2022ko ekainaren 1ekoa, Araubide Juridikoaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaia betetzeko agintzen duena; epai horrek prozedura arrunteko 329/2022 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baiesten du.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak prozedura arrunteko 329/2022 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako 107/2022 epaia ikusita, zeinaren epaitza honako hau baita:

«Ez dugu onartzen demandatuak eskatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren onartezintasuna.

Baietsi egiten dugu prokuradore Arantzane Gorriñobeascoa Etxebarria andreak, Asociación de Hostelería de Bizkaia – Bizkaiko Ostalaritza Elkarte, Asociación de Empresarios de Hostelería de Gipuzkoa, SEA Empresas Alavesas eta Asociación de Sidrerías de Gipuzkoa – Gipuzkoako Sagar-dogileen Elkarte elkartearen izenean eta horiek ordezkatzuz, lehendakariaren martxoaren 26ko 16/2021 Dekretuaren hirugarren xedapenaren kontra aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. 16/2021 Dekretuaren bidez honako dekretu hau aldatu zen: 13/2021 Dekretua, martxoaren 6koa, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratu diren, alarma-egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakae-raren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. Eta horrenbestez:

- 1.– Baliogabetu egiten dugu errekurritutako Dekretuaren hirugarren xedapen hori.
- 2.– Berariaz kondenatzen da alderdi demandatua kostuak ordaintzera».

Araubide Juridikoaren zuzendariak epaia betetzea ebazten du, eta ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen du.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 1a.

Araubide Juridikoaren zuzendaria,  
NIEVES MARTÍNEZ DE ANTOÑANA BLANCO.